

Euskal Autonomi Elkarteko Xedapen Orokorrak

Disposiciones Generales del País Vasco

LEHENDAKARITZA, ZUZENTZA
ETA AUTONOMI GARAPENERAKO SAILA

2604

195/1990 DEKRETUA, uztailaren 24koa, trasferentzien ondorioz beste Administrazio Publikoetatik datozen funtzionariak Euskal Autonomi Elkarteko Administrazioaren Kidegoetan sartzea ezartzen duena.

Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legeak 36.2 atalean eta gehigarritzko erabakietatik bigarrenean dioenez, transferentzien ondorioz Euskal Administrazio Publikoetan sartu diren edo sar daitezkeen beste Administrazio Publikoetako funtzionarioek sartu direneko Administrazio Publikoetako funtzionario-egoera lortuko dute, lehen zuten Kidego edo Eskalako Taldea gordeko zaiela, baita izendatuta zuten mailari datzekon diru-eskubideak ere.

Halaber, Lege horrek, aldibaterako xedapenetatik bigarrenean, urtebeteko epea finkatzen du indarrean sartzen denetik, Jaurlaritzak funtzionari talde hori sartzeko agindua eman dezan. Nolanahi ere, funtzionari horiek gaur egun diharduteneko lanpostuei atxikita jarraituko dute.

Legean oharmandakoa orokorra denez, beharrezko gertatzen da zenbait arau finkatzea, beste Administrazio Publikoetatik datozen funtzionari guztiak euskal funtzio publikoaren egituran eta antolae-ran benetan sartzeko erizpide berdinak zehazteko.

Bestalde, 1989.eko azaroaren 24ean Funtzio Publiko Euskal Batzordea osatu zen. Organu hori Lege horren bidez sortzen da eta bertan adierazten denez aholkularitzarako, Euskal Administrazio Publikoetako lanarigoarekiko politika osatzen duten neurriak koordinatzeko eta bere zerbitzupeko langileak partehartzeko organua da. Batzordeak, besteak beste, Jaurlaritzak onartu behar dituen eta funtzio publikoaren arloan eragina duten xedapen orokorren proiektuekiko erizpen-txostena eman beharko du hilabeteko epearen barruan. 1990.eko maiatzaren 18an igorri zitzaion proiektua aipatutako Organuari eta honek 1990.eko maiatzaren 30ean eman zuen ezinbesteko erizpen-txostena.

Aldibaterako xedapenetatik bigarrenean datzan aginduaren indarrez, Lehendakaritza, Zuzentza eta Autonomi Garapenerako Sailburuaren saloz eta Jaur-laritzak 1990.eko uztailaren 24ean egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, honako hau

XEDATU DUT:

1. *atala.*— Dekretu hau ondoren adierazten diren-entzat izango da erabilgarri: beste Administrazio Publikoetatik etorri eta Autonomi Elkarteetako zerbitzuen administrazio egoeran edo antzeko egoeran 1989.eko uztailaren 29an Autonomi Elkarteko Administrazio Nagusiaren edo bere Autonomiadun Orga-

DEPARTAMENTO DE PRESIDENCIA, JUSTICIA
Y DESARROLLO AUTONÓMICO

2604

DECRETO 195/1990, de 24 de julio, por el que se determina la integración en los Cuerpos de la Administración de la Comunidad Autónoma Vasca de los funcionarios procedentes de otras Administraciones Públicas en virtud de transferencias.

La Ley 6/1989, de 6 de julio, de la Función Pública Vasca, prevé en su artículo 36.2 y en su disposición adicional segunda, que los funcionarios de otras Administraciones Públicas que hayan accedido o accedan a las Administraciones Públicas Vascas en virtud de transferencias, se integrarán en los Cuerpos y Escalas de su Administración de destino conforme al Cuerpo de procedencia y las funciones asignadas, respetándoseles el Grupo del Cuerpo o Escala de procedencia, así como los derechos económicos inherentes al grado personal que tuvieran reconocido.

Asimismo, la mencionada Ley, en su disposición transitoria segunda, establece el plazo de un año, desde la entrada en vigor de la misma, para que el Gobierno determine la integración del colectivo de funcionarios descrito, los cuales continuarán asignados a los puestos de trabajo que en la actualidad vinieren desempeñando.

El carácter genérico de lo previsto por la Ley hace necesario elaborar unas normas que concreten unos criterios uniformes para llevar a cabo la integración efectiva de todos los funcionarios procedentes de otras Administraciones Públicas en la estructura y organización de la función pública vasca.

De otro lado, y constituido el pasado día 24 de Noviembre de 1989 el Consejo Vasco de Función Pública, órgano que la Ley citada crea, dotándole de un carácter consultivo y de coordinación de las medidas que integran la política de personal de las Administraciones Públicas Vascas, así como de participación del personal a su servicio, y entre cuyas funciones se enumera el informar en el plazo de un mes, los proyectos de disposiciones generales que hayan de ser aprobados por el Gobierno cuando afecten a materia de función pública, con fecha 18 de mayo de 1990 fue remitido el proyecto al citado Organó, que emitió informe el 30 de mayo de 1990.

En virtud del mandato contenido en la disposición transitoria segunda, a propuesta del Consejero de Presidencia, Justicia y Desarrollo Autónomo, previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su sesión celebrada el día 24 de julio de 1990,

DISPONGO:

Artículo 1.— El presente Decreto será de aplicación a los funcionarios procedentes de otras Administraciones Públicas que estaban al servicio de la Administración General de la Comunidad Autónoma y sus Organismos Autónomos en fecha 29 de julio de 1989 en la situación administrativa de servicios en Comu-

nuen zerbitzuplean zeudenentzat, eta halaber, transferentzien ondorioz, egun horretaz gero zerbitzuak betetzera pasatu direnentzat, osasun, irakaskuntza eta ikerkuntza langileak honetatik kanpo gelditzen direla.

2. atala.— Aurreko atalak aipatzen dituen funtzionarioiek Autonomi Elkarteko Administrazio Nagusiko berenezko funtzionari maila lortuko dute eta uztailearen 6ko 6/1989 Legearen xedapen gehigarrietatik lehenengoan ohartemandako Kidegoetan sartuko dira, datozeneko kidego edo Eskalaren arabera eta izendatutako ihardunen berdinketaren arabera.

3. atala.— Aurreko ataletan aipatutako funtzionarioiek jatorrizko Kidego edo Eskalako sailkapen Taldeari eta aitortuta duten norbere mailari darizkion diru eskubideei eutsiko diete eta Euskal Autonomi Elkarteko funtzio publikoari buruzko legeen pean egongo dira.

Funtzionario horiek, halaber, jatorrizko gizarte prebizioko erregimenari eutsiko diote.

1. atala.— 1. atalak aipatzen dituen funtzionarioiak uztailearen 6ko 6/1989 Legearen xedapen gehigarrietatik lehenengoan ohartemandako Kidegoetan sartuko dira, ondoren zehazten diren betekizunen arabera:

a) Bere garaian sartzeko titulazio berdina edo titulazio espezifiko berdina/berdinak beharrezko izan zituzteneko Kidego edo Eskalaren barruan egotea.

b) Jatorrizko Kidego edo Eskalari aitortutako eginkizunak eta Autonomi Elkarteko Administraziooko Kidegoei aitortutakoak antzekoak edo berdinak izatea.

5. atala.— 1.— A Taldean sartzeko 6/1989 Legearen 43. atalean eskatutako titulazio maila duren eta Dekretu honen I eta II. Eraskinetan adierazitako kidego, eskala, subeskala, talde, azpitalde, kategoria edo lanpostuen barruan dauden funtzionarioiak Autonomi Elkarteko Administrazioetako Administrazio Goimailako Kidegoan edo Goimailako Teknikarien Kidegoan sartuko dira, hurrenez hurren.

2.— B Taldean sartzeko 6/1989 Legearen 43. atalean eskatutako titulazio maila duten eta Dekretu honen III eta IV. Eraskinetan adierazitako kidego, eskala, subeskala, talde, azpitalde, kategoria eta lanpostuen barruan dauden funtzionarioiak Autonomi Elkarteko Administraziooko Administrazio Kudeaketako Kidegoan edo Erdimailako Teknikari Kidegoan sartuko dira, hurrenez hurren.

3.— C Taldean sartzeko 6/1989 Legearen 43. atalean eskatutako titulazio maila duten eta Dekretu honen V eta VI. Eraskinetan adierazitako kidego, eskala, subeskala, talde, azpitalde, kategoria eta lanpostuen barruan dauden funtzionarioiak Autonomi Elkarteko Administraziooko Administrazio Kidegoan eta Erdimailako Teknikari Laguntzaileen Kidegoan sartuko dira, hurrenez hurren.

4.— D Taldean sartzeko 6/1989 Legearen 43. atalean eskatutako titulazio maila duten eta Dekretu honen VII. Eraskinean adierazitako kidego, eskala, subeskala, talde, azpitalde, kategoria eta lanpostuen barruan dauden funtzionarioiak Autonomi Elkarteko

nidades Autónomas o asimilada, y también a los funcionarios que pasen, o hayan pasado, a prestar servicios con posterioridad a esa fecha, en virtud de transferencias, a excepción del personal sanitario, docente e investigador.

Artículo 2.— Los funcionarios a los que se refiere el artículo precedente adquirirán la condición de funcionarios propios de la Administración General de la Comunidad Autónoma y se integrarán en los Cuerpos previstos en la disposición adicional primera de la Ley 6/1989, de 6 de julio, conforme al Cuerpo o Escala de procedencia y la similitud de funciones asignadas.

Artículo 3.— A los funcionarios mencionados en los preceptos anteriores se les respetarán el Grupo de clasificación del Cuerpo o Escala de procedencia y los derechos económicos inherentes al grado personal que tengan reconocido, así como les será de aplicación la legislación sobre función pública de la Comunidad Autónoma Vasca.

Asimismo, conservarán el régimen de previsión social que tuvieran originariamente.

Artículo 4.— Los funcionarios a quienes hace mención el artículo 1 se integrarán en los Cuerpos previstos en la disposición adicional primera de la Ley 6/1989, de 6 de julio, de conformidad con los siguientes requisitos:

a) Pertenecer a un Cuerpo o Escala para ingresar en los cuales se exigió el mismo nivel de titulación o bien la misma o mismas titulaciones específicas.

b) Que el Cuerpo o la Escala de procedencia tenga atribuidas funciones coincidentes o similares con las asignadas a los Cuerpos de la Administración de la Comunidad Autónoma.

Artículo 5.— 1. Los funcionarios que tengan el nivel de titulación exigido en el artículo 43 de la Ley 6/1989 para ingresar en el Grupo A y pertenezcan a los cuerpos, escalas, subescalas, grupos, subgrupos, categorías o plazas relacionados en los Anexos I y II del presente Decreto se integrarán, respectivamente, en el Cuerpo Superior de Administración o en el Cuerpo Superior Facultativo de las Administraciones de la Comunidad Autónoma.

2. Los funcionarios que tengan el nivel de titulación exigido en el artículo 43 de la Ley 6/1989 para ingresar en el Grupo B y pertenezcan a los cuerpos, escalas, subescalas, grupos, subgrupos, categorías o plazas relacionados en los Anexos III y IV del presente Decreto se integrarán, respectivamente, en el Cuerpo de Gestión Administrativa o en el Cuerpo de Técnicos de Grado Medio de la Administración de la Comunidad Autónoma.

3. Los funcionarios que tengan el nivel de titulación exigido en el artículo 43 de la Ley 6/1989 para ingresar en el Grupo C y pertenezcan a los cuerpos, escalas, subescalas, grupos, subgrupos, categorías o plazas relacionados en los Anexos V y VI del presente Decreto se integrarán, respectivamente, en el Cuerpo Administrativo o en el Cuerpo de Ayudantes Técnicos de la Administración de la Comunidad Autónoma.

4. Los funcionarios que tengan el nivel de titulación exigido en el artículo 43 de la Ley 6/1989 para ingresar en el Grupo D y pertenezcan a los cuerpos, escalas, subescalas, grupos, subgrupos, categorías o plazas relacionados en el Anexo VII del presente De-

Administrazioko Administrari Laguntzaileen Kidegoan sartuko dira.

5.- E Taldean sartzeko 6/1989 Legearen 43. atalean eskatutako titulazio maila duten eta Dekretu honen VIII. Eraskinean adirazitako kidego, eskala, subeskala, talde, azpitalde, kategoria eta lanpostuen barruan dauden funtzionariak Autonomi Elkartekeko Administrazioko Menpekoen Kidegoan sartuko dira.

6.- Halaber, 4. atalean finkatutako eskakizunak betetzen dituzten eta II, IV edo VI. Eraskinetan agertzen ez diren kidego, eskala, subeskala, talde, azpitalde, kategoria edo plaza duten funtzionariak Administrazio Goimailako Kidegoan, Administrazio Kudeaketako Kidegoan eta Administrazio Kidegoan sartuko dira, jatorrizko Kidego eta Eskalei atxikitako eginkizunen arabera.

6. atala.- 1.- Aurreko atalean aipatutako kidego, eskala, subeskala, talde, azpitalde, kategoria edo plaza atxita dauden eta 6/1989 Legearen 43. atalak aipatzen duen titulazio nahikoaren eskakizuna betetzen ez duten funtzionariak ihardunez dagozkien Kidegoetan sartuko dira, transferentzia egiterakoan atxikita zeudeneko sailkapen taldeari eutsiko diotelarik; baina, Kidego horietatik edozeinetan sartzea bere zernolako bereziei begira egingo da.

Aurreko atalean oharmandako langileen sarrerak ez du kentzen 6/1989 Legearen 43. atalean ezartzen den Talderako titulazio mailaren eskakizuna egiaztatu beharra, gaur egun betetzen dituztenak ez diren beste lanpostu batzuk bete ahal izateko.

2.- Nolanahi ere, funtzionari horiei Dekretu honen 3. atalean beste funtzionarietzat oharmentzen diren bermeak aitortuko zaizkie.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehenengoa.- Euskal Administrazio Publikoek bere baitan diharduten transferitutako funtzionariak sartuko dituzte Dekretu honetan ezarritakoaren arabera.

Bigarrena.- Estatuko Administraziotik datozen eta Nekazaritza Hazkundeko Monitoreen eta Nekazaritza Hazkundeko Etxeko Ekonomiako Ajenteen Eskalen barruan dauden funtzionariak Erdimailako Teknikarrien Sailean (B Taldean) sartuko dira, bakoitzaren zernolako bereziei begira eta ez talde gisa; eta hori guztiori, eginkizun eta titulazioari begira Industria Maitutzako Eskaletako Lantegi Maisuen eskakizun berberak betetzen baitituzte eta Eskala hauek Administrazio Publiko ezberdinetan B sailkapen taldeari atxikita agertzen baitira.

Aurrekoak ez du kentzen 6/1989 Legearen 43. atalean ezartzen den Talderako titulazio mailaren eskakizuna egiaztatu beharra, gaur egun betetzen dituztenak ez diren beste lanpostu batzuk bete ahal izateko.

Hirugarrena.- Dekretu honek aipatzen duen benetako sarrera egin dadin, sarreraren datuei buruz dagozkien anotazioak egingo dituzte funtzio publikoaren arloan oganu eskudunek interesdun bakoitzaren espedientean.

creto se integrarán en el Cuerpo Auxiliar Administrativo de la Administración de la Comunidad Autónoma.

5. Los funcionarios que tengan el nivel de titulación exigido en el artículo 43 de la Ley 6/1989 para ingresar en el Grupo E y pertenezcan a los cuerpos, escalas, subescalas, grupos, subgrupos, categorías o plazas relacionados en el Anexo VIII del presente Decreto se integrarán en el Cuerpo Subalterno de la Administración de la Comunidad Autónoma.

6. Asimismo, se integrarán en los Cuerpos Superiores de Administración, de Gestión Administrativa y Administrativo en razón de las funciones que tengan asignados sus Cuerpos y Escalas de procedencia, aquellos funcionarios que reúnan los requisitos fijados en el precedente artículo 4, y su cuerpo, escala, subescala, grupo, subgrupo, categoría o plazo no figure relacionado en los Anexos II, IV o VI del presente Decreto.

Artículo 6.- 1. Los funcionarios de los cuerpos, escalas, subescalas, grupos, subgrupos, categorías o plazas citados en el artículo anterior que no cumplan el requisito de titulación suficiente a que se refiere el artículo 43 de la Ley 6/1989, se integrarán en los Cuerpos que funcionalmente corresponda, respetándoseles el grupo de clasificación al que estuvieren adscritos en el momento de su transferencia, si bien su integración en cualquiera de dichos Cuerpos será a título individual.

La integración de dicho personal prevista en el apartado anterior no exime de la acreditación del requisito del nivel de titulación por Grupo del artículo 43 de la Ley 6/1989 citada, a los efectos de la provisión de sucesivos puestos de trabajo distintos a los que ocupan en la actualidad.

2. No obstante, a estos funcionarios se les reconocerán las mismas garantías que para los demás se prevén en el artículo 3 del presente Decreto.

DISPOSICIONES ADICIONALES

Primera.- Las Administraciones Públicas Vascas procederán a efectuar la integración de los funcionarios transferidos que en ellas presten sus servicios de conformidad con lo establecido en el presente Decreto.

Segunda.- Los funcionarios pertenecientes a la Escala de Monitores de Extensión Agraria y a la de Agentes de Economía Doméstica de Extensión Agraria procedentes de la Administración del Estado, como quiera que reúnen similares requisitos en cuanto a funciones y titulación que los Maestros de Taller de las Escalas de Maestría Industrial, Escalas que figuran adscritas al grupo de clasificación B en las distintas Administraciones Públicas, quedarán integrados en el Cuerpo de Técnicos de Grado Medio, Grupo B, a título personal.

Ello no exime de la acreditación del nivel de titulación por Grupo del artículo 43 de la Ley 6/1989 citada, a los efectos de la provisión de sucesivos puestos de trabajo distintos a los que ocupan en la actualidad.

Tercera.- A efectos de que se produzca la integración efectiva a que hace referencia el presente Decreto, los órganos competentes en materia de función pública efectuarán las correspondientes anotaciones de los datos de la integración en los expedientes personales de los interesados.

Laugarrena.— Dekretu honen indarrez uztailaren 6ko 6/1989 Legearen Xedapen Gehigarrietatik Lehenengoan oharmandako Kidegoetan sartzen diren funtzionariak, gaur arte bete duten lanpostuei eutsiko diete, izaera eta baldintza berdinetan.

AZKEN XEDAPENAK

Lehengoa.— Lehendakaritza, Zuzentza eta Autonomi Garapenerako Sailburuaren Aginduz zehaztuko da prozedura Dekretu honek aipatzen dituen funtzionariak Autonomi Elkarteko Administrazioaren kidegoetan benetan sartzeko, Dekretu honetan bertan ezartzen diren oharrekin arabera.

Bigarrena.— Nolanahi ere, Lehendakaritza, Zuzentza eta Autonomi Garapenerako Sailburuari baimena ematen zaio araudi hau garatzeko.

Hirugarrena.— Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadin egunaren biharamonean hartuko du indarra Dekretu honek.

Gasteiz, 1990.eko uztailak 24.

Lehendakaria,

JOSE ANTONIO ARDANZA GARRO.

Lehendakaritza, Zuzentza eta
Autonomi Garapenerako Sailburua,
JUAN RAMON GUEVARA SALETA.

I. ERASKINA

A Taldea. Administrazio Goimailako Kidegoa

- Estatuko Administrazio Zibilen Goimailako Kidegoa.
- Idazkaritza Nagusiko eta Sarrera Idazkaritzako Subeskalak.
- Toki Gorpuzioetako Administrazio Nagusiko Goimailako Teknikariak.
- Autonomiadun Erakundearen Kudeaketarako Goimailako Teknikariak.
- Zerbitzu Sozioprofesionaltako Erakunde mailako Administrazio Goimailako Teknikariak (ezabatuko dena).

II. ERASKINA

A Taldea. Goimailako Fakultatiboen Kidegoa.

- Arkitektoak.
- Estatuko Ekonomilariak.
- Espezialitate guztietako Goimailako Ingeniariak.
- Estatuko Finantz Ikuskariak.
- Estatuko Legelarien Goimailako Kidegoa edo Estatuko Legelarien beste Kidego edo Eskalak.
- Toki Gorpuzioetako Administrazio Bereziko Goimailako Teknikariak.
- Autonomiadun Erakundeetako Goimailako Teknikari Fakultatiboak edo Goimailako Titulodunak, bere lanbide espezifikoaren gai diren baina destinoa lortu duten Administrazioan orokorrak edo amankomunak ez diren eginkizunak izendatuta dituztenak.

Cuarta.— Los funcionarios que, en virtud de lo dispuesto en este Decreto, se integren en los Cuerpos previstos en la Disposición Adicional Primera de la Ley 6/1989, de 6 de Julio, continuarán adscritos, con el mismo carácter y en iguales condiciones, a los puestos de trabajo que vinieran desempeñando.

DISPOSICIONES FINALES

Primera.— Mediante Orden del Consejero de Presidencia, Justicia y Desarrollo Autónomo, se determinará el procedimiento para hacer efectiva la integración de los funcionarios a que se refiere el presente Decreto, conforme a las previsiones que en el mismo se establecen, en los cuerpos de la Administración de la Comunidad Autónoma.

Segunda.— En todo caso, se faculta al Consejero de Presidencia, Justicia y Desarrollo Autónomo para el desarrollo de la presente normativa.

Tercera.— Este Decreto entrará en vigor el día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Vitoria-Gasteiz, a 24 de julio de 1990.

El Lehendakari,

JOSE ANTONIO ARDANZA GARRO

El Consejero de Presidencia,
Justicia y Desarrollo Autónomo,
JUAN RAMON GUEVARA SALETA.

ANEXO I

Grupo A. Cuerpo Superior de Administración.

- Superior de Administradores Civiles del Estado.
- Subescalas de Secretaria Superior y Secretaria de entrada.
- Técnicos Superiores de Administración General de las Corporaciones Locales.
- Técnica Superior de Gestión de Organismos Autónomos.
- Técnicos Superiores de la Administración Institucional de Servicios Socioprofesionales (a extinguir).

ANEXO II

Grupo A. Cuerpo Superior Facultativo.

- Arquitectos.
- Economistas del Estado.
- Ingenieros Superiores en todas sus especialidades.
- Inspectores de Finanzas del Estado.
- Superior de Letrados del Estado u otros Cuerpos o Escalas de Letrados del Estado.
- Técnicos Superiores de Administración Especial de las Corporaciones Locales.
- Técnicos Facultativos Superiores de Organismos Autónomos o Titulados Superiores que tengan asignadas funciones objeto de su profesión específica y que no tengan carácter general o común en la Administración de destino.

III. ERASKINA

- B Taldea. Administrazio Kudeaketako Kidegoa.
- Estatuko Administrazio Zibilaren Kudeaketa.
 - Ogasun Publikoko Kudeaketarako Kidego Berezia.
 - Autonomiadun Organuen Kudeaketarako Teknika.
 - Toki Gorporazioetako Administrazio Nagusiko Erdimailako Teknikariak.
 - Zerbitzu Sozioprofesionaletako Erakunde mailako Administrazio Erdimailako Teknikariak (ezabatuko dena).
 - Idazkaritza-Artekaritzako Subeskala.

IV. ERASKINA

- B Taldea. Erdimailako Teknikarien Kidegoa.
- Aparejadoreak eta etxebizitza laguntzaileak.
 - Espezialitate guztietako Erdimailako Ingeniariak.
 - Toki Gorporazioetako Administrazio Bereziko Erdimailako Teknikariak.
 - Estatuko Merkataritza Diplomadunak.
 - Erdimailako Eskola Teknikoetako tituloduen Eskaletan edo B Taldeko antzeko sailkapenetan sailkatutako Autonomiadun Erakundeetatikakoak, bere lanbide espezifikaren gai diren baina destinoa lortu duten Administrazioan orokorrak edo amankomunak ez diren eginkizunak izendatuta dituztenak.

V. ERASKINA

- C Taldea. Administrazioen Kidegoa.
- Estatuko Administrazio Erdimailako Administrazioen Kidego Orokorra.
 - Toki Gorporazioetako Administrazio Nagusiko Administrazioariak.
 - Autonomiadun Erakundeetako Administrazioariak.

VI. ERASKINA

- C Taldea. Laguntzaile Teknikoen Kidegoa.
- Delineanteak.
 - Autonomiadun Erakundeetatik datozenak eta C Taldean sailkatutakoak, bere lanbide espezifikaren gai diren baina destinoa lortu duten Administrazioan orokorrak edo amankomunak ez diren eginkizunak izendatuta dituztenak.

VII. ERASKINA

- D Taldea. Administrazio Laguntzaileen Kidegoa.
- Estatuko Administrazio Erdimailako Laguntzaileen Kidego Orokorra.
 - Toki Gorporazioetako Administrazio Nagusiko Laguntzaileena.
 - Autonomiadun Erakundeetako Laguntzaileena.
 - Autonomiadun Administrazioariak Laguntzaileena.
 - Funtzionaritzan sartzeko beharrezko eskakizunak betetzeagatik D Taldean sailkatuta dauden eta Talde horretako berarizko lanpostuetan diharduten funtzionariak.

ANEXO III

- Grupo B. Cuerpo de Gestión Administrativa.
- Gestión de la Administración Civil del Estado.
 - Especial de Gestión de Hacienda Pública.
 - Técnica de Gestión de Organismos Autónomos.
 - Técnicos Medios de Administración General de Administraciones Locales.
 - Técnicos Medios de la Administración Institucional de Servicios Socioprofesionales (a extinguir).
 - Subescala de Secretaría-Intervención.

ANEXO IV

- Grupo B. Cuerpo de Técnicos de Grado Medio.
- Aparejadores y ayudantes de vivienda.
 - Ingenieros Técnicos en todas sus especialidades.
 - Técnicos Medios de Administración Especial de las Corporaciones Locales.
 - Diplomados Comerciales del Estado.
 - Los procedentes de Organismos Autónomos clasificados como pertenecientes a la Escala de titulados de Escuelas Técnicas de Grado Medio u otras clasificaciones equivalentes del Grupo B que tengan asignadas funciones objeto de su profesión específica y que no tengan carácter general o común en la Administración de destino.

ANEXO V

- Grupo C. Cuerpo Administrativo.
- General Administrativo de la Administración del Estado.
 - Administrativos de Administración General de las Corporaciones Locales.
 - Administrativa de Organismos Autónomos.

ANEXO VI

- Grupo C. Cuerpo de Ayudantes Técnicos.
- Delineantes.
 - Los procedentes de Organismos Autónomos y aquellos otros clasificados como pertenecientes al Grupo C, que tengan asignadas funciones objeto de su profesión específica y que no tengan carácter común o general en la Administración de destino.

ANEXO VII

- Grupo D. Cuerpo Auxiliar Administrativo.
- General Auxiliar de la Administración del Estado.
 - Auxiliar de Administración General de las Corporaciones Locales.
 - Auxiliar de Organismos Autónomos.
 - Auxiliares Administrativos de Organismos Autónomos.
 - Los funcionarios que, estando clasificados en el Grupo D por cumplir las condiciones de titulación exigidas en su acceso al funcionariado, desempeñen puestos de trabajo propios de dicho Grupo.

VIII. ERASKINA

E Taldea. Menpekoen Kidegoa.

- Estatuko Administrazioako Menpekoen Kidego Orokorra.
- Toki Gorporazioetako Menpekoa.
- Autonomiadun Erakundeetako Menpekoa.
- Telefonozainak.
- Gidariak.
- Gidari-Mekanikariak.
- Funtzionaritzan sartzeko beharrezko eskakizunak betetzeagatik C Taldean sailkatuta dauden eta Talde horretako berarizko lanpostuetan diharduten funtzionariak.

ANEXO VIII

Grupo E. Cuerpo Subalterno.

- General Subalterno de la Administración del Estado.
- Subalterna de las Corporaciones Locales.
- Subalterna de Organismos Autonomos.
- Telefonistas.
- Conductores.
- Conductores-Mecánicos.
- Los funcionarios que, estando clasificados en el Grupo E por cumplir las condiciones de titulación exigidas en su acceso al funcionariado, desempeñen puestos de trabajo propios de dicho Grupo.

Beste zenbait Xedapen Otras Disposiciones

LEHENDAKARITZA EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA

2605

ERABAKIA, 1990.eko uztailaren 24koa, Emakumearen Euskal Erakundeko Andre Zuzendariarena, Argitalpen eta Ikusentzutezko Baliabide arloetan lankide izateko beka betetarako deialdia egiten duena.

Honako helburu hauek ditu Emakumearen Euskal Erakundeak, hots, sexuen arteko berdintasuna lortzea eta Euskal Autonomi Elkartearen emakumezkoak jasaten dituen era guztietako deskriminazio moduak kentzea errazteko baldintzak sustatzea. Diskriminazio horren gain eragina duten estereotipoak ematen dira, nahiz grafikozko, nahiz ikusentzutezko imajina bidez, era honetan, emakume-gizakumeen arteko ohizko rolei eusten zaiela eta emakumezkoa gizarte-ihardunetan geroz eta gehiago sartzen ari dela ez dela kontutan hartzen.

Horiek horrela, profesionalak arlo hauetan gaitzea bultzatu behar da, gizarteak emakumezkoari buruz duen imajina aldatu ahal izateko eta, aldaketa horrek, gizartearen eman diren aldaketekin adostasun gehiago izan dezan eta bai justizia eta berdintasun printzipioekin ere.

Horretarako, egokitzen jotzen da, Emakumearen Euskal Erakundeko argitalpen eta ikusentzutezko baliabideen arloan lankide izateko beka batetarako deialdia egitea. Honako hauek dira

OINARRI-ARAUAK:

I.- Deialdiaren xedea.

Emakumearen Euskal Erakundeko Argitalpen eta Ikusentzutezko baliabideen arloan lankide izateko beka bat ematea da deialdi honen helburua, aukeraberdintasun eta gizonezko eta emakumezkoen arteko harremanei buruz gizartearen sensibilizatu dadin bultzatuko duten profesionalak gaitzeko bideak eskaini ahal izateko.

PRESIDENCIA INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

2605

RESOLUCION de 24 de julio de 1990, de la Directora del Instituto Vasco de la Mujer, por la que se convoca una beca de colaboración en el Area de Publicaciones y Medios Audiovisuales.

Es objetivo del Instituto Vasco de la Mujer/Emakumearen Euskal Erakundea es promover las condiciones que faciliten la igualdad entre los sexos y la eliminación de todas las formas de discriminación de la mujer en Euskadi. A través de la imagen, tanto gráfica como audiovisual, se siguen transmitiendo estereotipos que inciden en esta discriminación, contribuyendo al mantenimiento de los roles tradicionales de los géneros sin tener en cuenta la creciente incorporación de las mujeres a la actividad social.

Por esta razón ha de estimularse la formación de profesionales en estas áreas, a fin de promover un cambio en la imagen de la mujer en la sociedad, no sólo más acorde con los cambios sociales producidos, sino también con los principios de justicia e igualdad.

Para ello se considera adecuado proceder a la convocatoria de una beca de colaboración en el area de publicaciones y medios audiovisuales del Instituto Vasco de la Mujer/Emakumearen Euskal Erakundea, de acuerdo con las siguientes:

BASES:

I.- Objeto de la convocatoria

La presente convocatoria tiene por objeto proceder a la provisión de una beca de colaboración en el Area de Publicaciones y Medios Audiovisuales del Instituto Vasco de la Mujer/Emakumearen Euskal Erakundea, con el fin de posibilitar la formación de profesionales en este campo que contribuyan a la sensibilización de la opinión pública sobre la igualdad de oportunidades y de trato entre hombres y mujeres.